

BALIO PROPOSAMENA

Gaur egun kultura anitzeko herrialde asko daude munduan, bakoitzak bere kultura, erlijio eta ohitura ezberdinekin. Hala ere, nahiz eta bisibildade gehiago ematen ari zaien hauei, hauen kontrako arrazakeriak ez du behera egiten eta gure enpresaren ustetan honen arazo garrantzitsuenetako bat, pertsona eta kultura horien egoera ez ulertzea da.

Hori dela eta, gure enpresak (zati batean) hau ekiditeko helburua ere izango du, bidaiengatik ordaindutako diruaren zati bat garapenerako diru sarrerak behar dituen herrialdeetara bideratuko baita (ez bakarrik hirugarren munduko herrialdeetan, toki guztietan baitago, gure ustez, diru laguntza behar duen elkarteren bat).

Bezeroek, beraien bidaia pertsonalizatzeaz gain, herrialde horren garapena sustatuko duen ekarpen bat egingo dute, diru hori bideratuta joango den tokia bisitatzeko aukerarekin.

Hortaz gain, gero eta pertsona gehiago hasi dira bidaiatzen asken urteetan, baina ez dakite prezio hoberenak edota ekintza egokienak aukeratzen. Gure enpresak arazo hori konponduko du, berezeroei denbora aurrezteaz gain, ahalik eta pertsonalen eta merkeen eskaintzea (bezeroek aukeratutako ekintzen arabera izango dena prezioa) ahalik eta segurtasun handienarekin (seguru batekin).